

Título: 'EMOZIOZKO PENTSAMENDU DIBERGENTE/KONBERGENTEAREN' (EDIKO) EREDU TEORIKOA, EBALUAZIOA ETA SUSTAPENA GOI-MAILAKO HEZKUNTZAN/THEORETICAL MODEL, ASSESSMENT AND PROMOTION OF 'EMOTIONAL DIVERGENT/CONVERGEN

Nombre: SOROA MARTINEZ, GORETI

Universidad: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Departamento: PROCESOS PSICOLOGICOS BASICOS Y DESARROLLO

Fecha de lectura: 19/12/2014

Mención a doctor europeo: concedido

Programa de doctorado: PSICOLOGIA: INDIVIDUO, GRUPO, ORGANIZACION Y CULTURA

Dirección:

> **Director:** Miren Nekane Balluerka Lasa

> **Director:** AITOR ARITZETA GALAN

Tribunal:

> **presidente:** ITZIAR ETXEBARRIA BILBAO

> **secretario:** ARANZAZU GOROSTIAGA MANTEROLA

> **vocal:** LEIRE GARTZIA FERNANDEZ

> **vocal:** José Luís Padilla García

> **vocal:** BRUNO RAFAEL BOCANEGRA ---

Descriptor:

> PSICOLOGIA GENERAL

El fichero de tesis no ha sido incorporado al sistema.

Resumen: Egun arreta berezia jasotzen ari den ikerketa-lerroa da emozioen eta sormenaren arteko erlazioarena. Gainera, hezkuntza eta lan arloetan ikasle nahiz langileen eraginkortasuna areagotzearen gako gaitasun sozioemozionalak eta sortzaileak lantzean egon daitekeela uste da. `Emoziozko pentsamendu Dibergente/Konbergentea, (EDIKO) deritzon fenomenoaren bitartez, tesi honek emozioen eta sormenaren elkarreragina ulertzeko, ebaluatzeko eta sustatzeko proposamen hirukoitza dakar. Lehenendabizi, EDIKO bere osotasunean ulertzen lagunduko digun eredu teorikoa aurkezten da, zeinak estilo kognitiboak (dibergentea eta konbergentea), aurre-disposizio afektiboak (positiboak eta negatiboak) eta jokaerak (proaktiboak eta prebentiboak) sormenezko prozesuetan uztartzen dituen. Bigarrenik, EDIKO neurtzeko baliozkoa eta fidagarria izango den tresna eraikitzen da, zeinak estilo afektibo-sortzaileak neurtzeaz gain, emozioek sormenean duten eragina (erraztuz edo oztopatuz) ebaluatzen duen. Hirugarrenik, goi-mailako hezkuntzan EDIKO sustatzeko esku-hartze programa bat diseinatzen da, zeinak arlo pertsonalean eta profesionalean autoezagutza, gaitasun sortzaileak eta emozionalak garatzea duen helburu. Laburbilduz, tesi honek egindako proposamen hirukoitza (EDIKoren eredu teorikoa, neurtze-tresna eta esku-hartze programa) ikerkuntza eta hezkuntza arloentzat ekarpen

erabilgarria izatea aurreikusten da; alde batetik, emozioen eta sormenaren arteko elkarreragina ulertzen eta ebaluatzen lagunduz, eta bestetik, gazteei begira funtsezkoak diren hiru prozesu psikologikoak (emozioa, kognizioa eta motibazioa) autoezagutza eta sormena garatzeko programa batean uztartuz.